

EBAZPENA, 2020ko urriaren 20koa, Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako Zuzendariarena, 2020ko urriaren 16an Unibasqen Aholku Batzordeak onartutako Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialetarako nazioartekotze-aitorpena lortzeko Protokoloa iragartzen duena.

UNIBASQEN GRADUKO ETA MASTERREKO UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIALETARAKO NAZIOARTEKOTZE-AITORPENA LORTZEKO PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA.....	1
2. XEDEA ETA NORAINOKOA	3
3. UNIBERTSITATEKO TITULU ETA IBILBIDE OFIZIALEN EBALUAZIORAKO ETA NAZIOARTEKOTZE-AITORPENERAKO PROZEDURA	4
4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	7

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Lehen atal honetan, Protokolo honen eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Kalitate Zigilu edo aitortzen erreferentzia-esparrua zein den azaltzen ahaleginduko gara.

Hala, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremuaren erregulazioari dagokionez, aipatzekoa da, lehenik ete behin, Gradu, Masterreko eta Doktoregoko tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezarri eta kentzeari buruzko abenduaren 19ko 274/2017 Dekretua, Euskadiko unibertsitate-ikasketa ofizialak, Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua inspiratzen eta arautzen duten printzipio eta irizpideei jarraikiz definitu eta antolatu beharko direla ezartzen duena. Trebakuntza handiko giza kapitala prestatzeko funtsezko helburuari erantzuten dio esparru horrek, Euskadiren behar sozio-ekonomikoei erantzun egoki bat eman ahal izateko; eta bestetik adierazten da, euskal hezkuntza-sistemaren, eta euskal gizartearen eta oro har Europako gizartearen espezifikotasun eta indarrei ere erantzun beharko diela.

Dekretu horren 4. artikulua ezartzen duenez, Euskadiko Gradu, Masterreko eta Doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialen eskaintza hiru mailatan kategorizatuko da: oinarritzakoa, tartekoa eta aurreratua, metodo eta metodologia berritzaileetan oinarritutako prestakuntzan, nazioartekotzean eta enpresa, instituzio eta beste erakundeekiko harremanetan oinarritutako bektoreen arabera, gizarteari Euskal Unibertsitate Sistemaren ezaugarrien gainean ematen zaion informazioa hobetzeko

helburuarekin. Dekretuak ezartzen du, halaber, Unibasqek¹ garatu eta iragarri beharko dituela ikasketak kategorizatzeko protokolo eta prozedurak, aldez aurretik aipatutako bektoreei jarraikiz.

Gainera, Hezkuntzako sailburuaren Graduko eta Masterreko unibertsitate-ikasketa ofizialen kategorizazioari buruzko 2018ko uztailaren 27ko Aginduaren helburua da Euskal Unibertsitate Sistemak eskainitako Graduko eta Masterreko unibertsitate-ikasketa ofizialen oinarritzko mailaren, tarteko mailaren eta maila aurreratuaren arabeko kategorizazioa arautzea, gizarteak Sistema horren ezaugarrien gainean duen informazioa areagotzeko helburuarekin. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak definitutako 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planak, Nazioartekotzea garatzeko ardatz espezifiko bat biltzen du, horrela, Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioarteko orientazioari ematen zaion garrantzia argi eta garbi adierazteko. Unibertsitatearen misio guztietan eragina duen zeharkako garapen-ardatz baten antzera planteatzen da.

Bestetik, estatuko esparru erregulatuarekiko dagokionez aipatzekoa da Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa, unibertsitateko ikasketa eta titulu ofizialen egituraketa ezartzen duela. Ildo horretan, unibertsitate-ikasketa ofizialen ordenazioa ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuko 25. artikulua xedatzen duenez, Unibertsitateen Kontseiluak aldeko edo kontrako ebazpena emango dio unibertsitate-titulazio bat ezartzeko proposamenari, behin dagokion ebaluazio-organoak titulazioaren ikasketa-plana ebaluatu ondoren.

Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan kalitatea ziurtatzeari dagokionez, aipatzekoa da, halaber, Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan Kalitatea Bermatzeko Irizpide eta Jarraibideek —ESG akronimoaz ere ezagunak— ezarritako esparrua. E4 Taldeak sortu ditu (European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA), European Students' Union (ESU), European University Association (EUA), European Association of Institutions in Higher Education (EURASHE), besteak beste, honako erakunde hauekin elkarlanean: Education International (EI), BUSINESSEUROPE eta European Quality Assurance Register of Higher Education (EQAR).

Orobat, eta EAEko eremura itzuliz, aipatzekoa da euskal erakundeetan kalitatearen kudeaketa sustatzeko politika, Euskalit Kalitaterako Euskal Iraskundeak bere programen bitartez bultzatua. Horren erakusgarri dugu, batetik, Kudeaketa Aurreratuko Eredua, EAEko industria- zein zerbitzu-eremuetako erakunde publiko eta pribatu ugarietako erreferentziatzko eredu bat dena, eta, bestetik, Eredu horri loturik Euskalitek landutako aitorpenen eskema.

Erreferentzia horiek guztiak gogoan, eta kontuan hartuta, halaber, Nazioartekotzeko Zigilu edo aitorpenerako deialdietan Unibasqek hartutako esperientzia, eta, bere jardun-printzipioei jarraikiz eta etengabe hobetzeko asmoarekin, Agentziak bere interes-taldeekin aurrera daraman gogoeta, Agentziaren Aholku Batzordeak, 2020ko urriaren 16ko bilkuran, honako Protokolo hau onartzea erabaki

¹ Ildo horretan gogora ekarri behar da Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 48 artikulua eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legeak Unibasqi ematen diotela egoitza soziala EAEn duten unibertsitateetako titulazioak ebaluatzeko eskumena.

du, Euskal Unibertsitate Sistemaren Gradu eta Masterreko titulazio ofizialetan Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua lortzeko prozedura eta betekizunak ezartzeko helburuarekin.

2. XEDEA ETA NORAINOKOA

Unibasqek Euskal Unibertsitate Sistemaren Gradu eta Masterreko titulazioei emandako Kalitate Zigiluak edo aitortenak, titulazio horietarako borondatezko ebaluazio-programa baten esparruan ezarritako sariak dira. Aitorpen horien helburua da Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateei laguntzea, beren titulazioetako garrantzizko hainbat alderdi espezifiko hobetzeko bidean. Hortaz, sari horien helburu nagusia da Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen ahalegina sustatu eta bizkortzea beren titulazioak hobetzeko bidean, bigarren helburua ahalegin hori gizartearen begietara nabarmenago egitea izanik. Zehazki, Unibasqen Kalitate Zigiluak Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate-titulazioetako alderdi jakin batzuetan zentratzen dira, hain zuzen ere, EAEko unibertsitate-politikaren arreta eta hobekuntzaren xede diren alderdietan (ikus aurreko atala).

Protokolo honen ardatza den Nazioartekotzeko Kalitate Zigiluaren helburu nagusia da Euskal Unibertsitate Sistemaren Gradu eta Masterreko titulazioen nazioarteko orientazioa hobetzeko ahalegina sustatu eta bizkortzea, bigarren helburua ahalegin hori gizartearen begietara nabarmenago egitea izanik.

Nazioartekotze-aitorpena titulazio oso batera zabaltzeko aukera izango da, edo haren ibilbide batera soilik. Lehen kasuan, Protokolo honetan zehaztutako betekizunak titulazio osoan bete beharko dira. Bigarren kasuan, aldiz, ibilbide jakin horretan bete beharko dira, baina ez da nahitaezkoa izango haren barruan ez dagoen titulazio zatian.

Horrez gain, Protokolo honetan biltzen dira, ikasleek Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua beren tituluaren Gehigarri Europarrean txertatzeko bete behar dituzten baldintzak. Aitorpena titulazio osora zabaltzen bada, litekeena da ikasle guztiek ez betetzea nazioartekotze-aitorpena beren gehigarrian txertatzeko eskatzen diren betekizunak. Ibilbide batera zabaltzen bada, aldiz, ibilbide horretako ikasle egresatu guztiek bete beharko dituzte betekizun horiek, edo bestela, ibilbideak aitortzen galduko du.

Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistroan inskribatutako Euskal Unibertsitate Sistemaren Gradu eta Masterreko titulu ofizial guztiek izango dute Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua borondatez jasotzeko aukera.

EAEko eskumen-eremuko unibertsitateetako Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistroan inskribatutako Gradu eta Masterreko titulazio ofizialen Nazioartekotzeko Kalitate Zigiluak lortzeko betekizunak ezartzen ditu Protokolo honek. Beste unibertsitate batzuetan ere aplikatu ahal izango da, Unibertsitatearen eta ebaluazio hau aintzat hartu eta garatzen duen Agentziaren arteko hitzarmen baten esparruan.

Azkenik, aipatzekoa da, Unibasqek nazioarteko ikuspegiarekin zerbitzua emateko bokazioa duenez —eta horren adierazgarri dugu kalitatea ziurtatzeko agentzien zenbait partzuergo europarretan parte hartzen duela, *European Consortium for Accreditation in higher education* (ECA) izenekoan adibidez—, Agentziak

aukera ematen duela Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua emateko, nazioartekotzearen eremuan ospea lortu duten beste sari batzuekiko baliokidetasuna onartuz (Erasmus Mundus, adibidez).

3. UNIBERTSITATEKO TITULU ETA IBILBIDE OFIZIALEN EBALUAZIORAKO ETA NAZIOARTEKOTZE-AITORPENERAKO PROZEDURA

3.1. Unibasqen parte hartzeko eskaera jasotzea

Unibasqek deialdi bat egingo du urtean, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua edo aitortpena eska dezaten. Unibertsitateek eskaera bat aurkeztuko dute I. Eranskinari jarraikiz, aitortpena jaso nahi duen titulu edo ibilbide bakoitzerako, Protokolo honetan ezarritako ebaluazio-irizpideei jarraikiz. Horrez gain, irizpide horiek betetzen direla bermatzeko ebidentziak aurkeztu beharko dira, aparteko beste dokumentu batean. Titulazioen aitortpenerako eskaerak ez dira tramitera onartuko baldin eta Unibasqek edo eskumeneko beste ebaluazio-agentzia batek egiaztatutako edo akreditatutako titulazioaren azken memoriari dagokionez edozein motatako aldaketak proposatzen badituzte. Ebaluazioa eskatu aurretik onartu beharko dira aldaketak, horretarako ezarritako bideetatik aurkeztu ondoren.

Neurri bateko zabalpena duten proiektuak izan beharko dute, eta horrenbestez, zenbait lorpen mahai gainean jartzeko moduan egongo direnak izango dira.

Deialdia egitean, Unibasqek zehaztuko du eskaera ofiziala aurkezteko prozesua.

3.2. Unibasqek txostena egitea

Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak egingo du aitortpenerako txostena. Jakintzaren hainbat adarretako ospe handiko akademikoek, profil profesionaleko pertsona batek eta ikasle batek osatuko dute batzorde hori. Ebaluazio Batzordeen jardunak, Unibasqek bere Etika eta Berme Kodean eta dokumentu honetan jasotako barne-prozedurako arauetan ezarritako jarraibideen arabera arautuko dira. Profesional, ikasle eta akademikoen aholkularitza izan dezake Batzorde horrek.

Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak txosten arrazoituko proposamen bat landuko du, ezarritako ebaluazio-irizpideak betetzen diren edo ez aintzat hartuta, eta aitortpena ematearen aldeko edo kontrako iritzia emango du. Azken kasu horretan, aldeko txosten bat lortzeko alegazioen epearen barruan ezinbestean aldatu behar diren alderdiak zein diren adierazteko aukera izango da. Txosten-proposamen hori Unibertsitateari bidaliko zaio, egutegiko 10 egunen epean alegazioak aurkezteko aukera izan dezan. Behin epea amaiturik eta, hala badagokio alegazioak baloratu ondoren, Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak behin betiko ebaluazio-txosten bat egingo du, aldekoa edo kontrakoa izan daitekeena, eta Unibertsitate eskatzaileari eta Eusko Jaurlaritzari helaraziko dio. Aldekoa bada, hobetzeko gomendioak txertatzeko aukera izango da, baita aitortpenari eusteko Unibertsitateak hartu beharreko konpromisoak ere, titulazioaren akreditazioaren egiaztapenean, jarraipenean edo berritzean egindako gainerako gomendioak bezala tratatuko direnak.

Gehienez ere 6 hilabeteko epean egingo da txostena, ebaluazioa egiteko behar den dokumentazio guztiaren sarrera-datatza gerotzik. Epe horren barruan eabazpen espresurik eman ezean, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

3.3. Ebaluazio-prozesuaren emaitza eta jarraipena

Tituluak edo ibilbideak Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua edo aitortpena jasotzen duenean, Unibertsitateak txertatuko du, Protokolo honetan ezarritako betekizunak bete dituen ikaslearen tituluaren gehigarrian. Gainera, informazio publikoan eta titulua zabaltzeko jardueretan bilduko du nazioartekotze-aitortpenaren jabe dela dioen aipamen bat, edo nazioartekotze-ibilbide bat duela dioena. Azken kasu horretan, tituluaren gaineko informazio publikoan espresuki adierazi beharko dira ibilbidearen izen espezifikoa eta plaza kopurua.

Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua edo aitortpena lortu duten titulazioak erraz identifikatu ahal izateko, Unibasqek ziurtagiri bat jarriko du bere titulaziorako aitortpen bat lortu duen Unibertsitatearen eskura, bertsio digitalean eta paperean, honako irudi honetan jasotakoaren antzeko aurkezpen bisual batekin.



Aitortutako titulazioari edo ibilbideari lotutako erregistro-zenbaki bat eramango du ziurtagiriak. Ziurtagiri horrekin batera, Unibasqek Unibertsitatearen eskura jarriko ditu Unibasqen Nazioartekotzeko Kalitate Zigiluko Markaren irudi-artxibo digitalak bertsio desberdinetan, Unibasqen Kalitate Zigiluetako marken erabilera korporatiborako Eskuliburu batekin batera.

Emandako Kalitate Zigiluak ezin izango zaizkie beste titulazio edo erakunde batzuei laga Unibasqek egindako ebaluazioa gaintitu dutenetatik aparte, ezta ebaluazio horren norainokoaren eraginpean ez dauden beste unitate edo eremu batzuei hedatu edo eskualdatu ere.

Honako kasu hauetan, Kalitate Zigilua edo aitortpena ezin izango da inoiz ere erabili:

- Zigiluaren hasierako ebaluazio-prozesua gaintitu ez denean.
- Zigiluaren ebaluazio positiboa kendu denean Zigiluaren beraren jarraipen-prozesuan.
- Zigiluaren izaera eraginpean hartzen duen tituluaren funtsezko aldaketa bat gertatzen denean eta aldaketa horrek Agentziaren onarpena ez duenean.

- Sortu den helbururako erabiltzen ez denean.

Nazioartekotzeko Kalitate Zigiluari edo aitortenari dagokion Marka Unibasqen jabetza da, eta estatuan eta Europan erregistratuko da; hortaz, lege-babes aplikagarriaren jabe da.

Beren titulazioetarako (titulazio oso bat edo titulazio horren ibilbide bat izan) Unibasqen Kalitate Zigilua edo aitortpena lortzen duten Unibertsitateek edo unibertsitate-zentroek, Unibasqen Kalitate Zigiluei lotutako irudiak edo markak erabili ahalgo dituzte titulu horiek bereizi edo sustatzeko. Horretarako, erabilera-eskuliburu horretan ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte une oro, baita horrelako kasuetarako ohikoak diren irudi korporatiboko jarraibideak ere. Unibasqen Kalitate Zigilu eta aitortpenei buruzko aipamenak argitasunez eta zintzotasunez aplikatu beharko dira beti, nahasmendua sortzeko aukera saihestuz.

Unibasqek bermatu behar du bere Kalitate Zigiluak edo aitortpenak ongi erabiltzen dituela. Bidegabeko edozein erabileraren berri badu, informazio-prozedura bat hasiko du, eta eraginpeko titulazioaren eta/edo erakundearen arduradunari jakinaraziko dio, presentzialki edo idazki bidez alegazioak aurkezteko aukera izan dezan. Audientzia-prozesuaren emaitzak ohartarazpen bat ekar dezake, non idazki bidez eskatuko den Kalitate Zigiluaren erabileraren baldintzak errespetatu daitezela. Ohartarazpenei kasu egiten ez zaienean edo larritasun handiagokoak direnean, dagozkion legezko jardunak hasiko ditu Unibasqek eta, bidezko bada, beste erakunde edo instituzioei jakinaraziko dizkie gertakariak, baita komunikabideei ere.

3.4. Jarraipena

Protokolo honen bitartez ematen den Kalitate Zigiluaren edo aitortpenaren jarraipena, aitortutako Tituluaren Akreditazioaren jarraipenean edo berritzean integratuko da, edo aitortutako Tituluaren eskaintzaren arduraduna den Zentroaren Erakunde Akreditazioaren berritzean.

Aitortutako tituluen arduradunek Unibasqi eman beharko diote Kalitate Zigilu hau zabaltzean izaten diren gertaeren berri, eta Agentziak ofizioz jaso ahalgo du bere eskumeneko Batzordeak edo Zuzendaritzak egokitzat jotzen duen informazio gehigarria.

Aitortutako Tituluaren Akreditazioaren jarraipenean edo berritzean (edo, hala badagokio, Erakunde Akreditazioa berritzean) edo ofiziozko jardun horretan detektatzen bada tituluak jada ez duela betetzen aitortpena lortzeko behar diren betekizunetako bat edo ebaluazio-txostenean jasotako konpromisoak ez direla bete, Agentziak aukera izango du emandako Kalitate Zigilua edo aitortpena kentzeko, baldin eta eskumeneko Batzordeak egokitzat jotzen badu. Unibertsitateak egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko aukera izango du, behin Agentziak betekizunen bat edo batzuk ez direla betetzen jakinarazten dionean. Alegazio horiek aztertu ondoren, Batzordeak behin betiko erabaki bat emango du, Kalitate Zigilua kendu behar den edo ez adieraziz. Kalitate Zigilua kentzeak berekin ekarriko du, automatikoki, aitortpenaren aipamena tituluaren gehigarrian —edo eraginpeko titulu edo ibilbidearen edozein informaziotan edo zabalkunde publikotan— biltzeko ezintasuna.

Ongi justifikatutako salbuespenezko kasuetan —nazioarteko mugikortasuna mugatzen duten ezinbesteko zirkunstantziak, oso krisi ekonomiko larriak eta antzeko kasuak—, Agentziak ez-betetze

koiunturala onartuko du Protokolo honetan ezarritako betekizunetako batzuei dagokienez, bereziki Protokolo honen ondoko atalaren 1.2. eta 1.3. puntuetan jasotakoei dagokienez. Nolanahi ere, salbuespenezko egoera horretan dagoen Unibertsitateak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Agentziari.

4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proposamenen ebaluazioa egingo da jarraian azaltzen diren ebaluazio-irizpideak kontuan hartuz, dagokion egiaztapenerako unibertsitateek aurkeztu beharreko titulu ofizialeko proiektuari dagokion memoria aurkezteko 1393/2017 Errege Dekretuko I. Eranskinean adierazitako atalekin bat etorriz.

Aurkezpena

Hasteko, aitortpena jaso dezakeen ibilbidearen edo titulazioaren Nazioartekotze Proiektua deskribatuko da, labur-labur. Neurri batean zabaldua dauden proiektuak izango dira, zenbait lorpen mahai gainean jartzeko moduan egongo direnak.

1. Tituluaren deskribapena

1.1. Kalitate Zigiluari loturik tituluan edo ibilbidean eskainitako plazen kopurua bildu behar da atal honetan.

Ibilbideen kasuan, aurkeztutako proiektuek garrantzizko plazen gutxieneko kopuru bat izan beharko dute tituluko sartu berrientzako plaza guztien aldean, edo, halakorik ezean, arrazoizko denbora-epe batean hala izango dela bermatzen duen proiektio bat bildu beharko dute. Tituluaren zein ibilbideen aitortpenetarako, Unibertsitateak bermatu beharko du ikasleak hartzeko eta aurkeztutako proiektua behar bezala zabaltzeko behar diren baldintzen jabe dela.

Unibertsitateak bidalitako eskaeran honako hauek jarri behar dira agerian:

- Nazioartekotzeko tituluan edo ibilbidean matrikulatutako ikasle guztiek beren GAL/MAL hizkuntza ez-ofizialetan egiteko aukera dutela.
- Nazioartekotze-aitortpena lortu nahi duten tituluko ikasle guztien GAL/MAL lanak EAEko hizkuntza ez-ofizialetan tutorizatze aukera badagoela, eta, nazioartekotze-ibilbidearen kasuan, ibilbideko ikasle guztiei dagokienez.
- Mugikortasunerako hitzarmenetan aurreikusitako plazen kopurua berdina edo handiagoa dela mugikortasuna aintzat hartzen den ikastaroetako tituluan edo ibilbidean matrikulatu diren ikasleen kopurua baino. Horretarako, hitzarmen-zerrenda bat aurkeztu behar da, hitzarmen bakoitzean, ikasle guztien kanpora mugitzeko aukera ziurtatzen duten aurreikusitako plazak zehaztuta.

1.2. Unibertsitateak egiaztatuko du, titulazioan edo ibilbidean matrikulatutako ikasleen gutxienez % 10, gutxi gorabehera, nazioarteko mugikortasun-programen bitartez hartu duela edo atzerritarrak direla.

Titulazio desberdinetako irakasgaietan matrikulatzen diren ikasle atzerritarrek edo nazioarteko mugikortasun-programetatik datozenek, ECTS gehien dituen titulazioan zenbatuko dira soilik. Ehuneko hori kalkulatu da eskaeraren aurreko ikasturte akademikoan matrikulatutako ikasle guztien gainean, hau da, titulua osatzen duten ikastaro guztietan eta bakoitzean matrikulatutako guztien gainean, tituluen aitortpenetarako kasuetan, edo bestela, ibilbidean matrikulatutako ikasle guztien gainean, nazioarteko ibilbideko aitortpenen kasurako.

1.3. Titulazio batean Nazioartekotzeko Kalitate Zigilu edo aitortpen bat lortzeko, gutxienez ikasleen % 20k, gutxi gorabehera, nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartu behar dute. Gainera, aldeztatik aurretik adierazi dugun bezala, titulazioak beharrezkoak diren akordioak bermatu behar ditu, nahi duten ikasle guztiek nazioarteko mugikortasun-programa batean parte hartzeko aukera izan dezaten. Ehuneko kalkulatu da aurreko ikasturte akademikoan tituluko edozein ikastaro egiteko kanpora mugitu diren ikasle guztiak kontuan hartuz, eta hautatutako erreferentzia-ikastaroan matrikulatutako ikasle guztiekin alderatuz.

Ibilbide baten Nazioartekotzeko Kalitate Zigilua edo aitortpena lortzeko, ikasle guztiek parte hartu behar dute horrelako programetan. Eta frogatu beharko da aurreko ikasturte akademikoan kanpora mugitu diren ikasleen kopurua, nazioartekotze-aitortpenaren eskaeraren eraginpeko ibilbideko plaza kopuruaren berdina edo handiagoa dela.

2. Titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-planaren justifikazioa

2.1. Nazioartekotzeak tituluaren konpetentzia batzuk garatzeko daukan interesa eta garrantzia justifikatu behar dira atal honetan.

2.2. Aitortpena lortzeko beharrezkoa da lehenagotik nazioartekotze-estrategia bat inplementatu izana, haren helburuak argi eta garbi identifikatuta. Zentroaren estrategia edo kudeaketa-planean bilduta egon behar dute helburu horiek, beren neurketa-adierazleekin eta adierazle horien xede-balioekin.

2.3. Aldeztatik aurretik deskribatutako xedeetarako, beharrezkoa da Batzorde eragile bat izatea nazioartekotze-estrategiari heltzeko eta estrategia hori koordinatzeko, gutxienez, atzerriko unibertsitate batean ospe handia lortu duen akademiko baten parte-hartzearekin. Nazioartekotze-estrategiari heldu eta hura koordinatuko duen Batzorde eragilearen jarduerari buruzko ebidentziak eta atzemandako gorabeherari buruzko aipamenak aurkeztuko dira, baita ikasleen edo proposatutako adierazleen jarraipenari buruzko aipamenak ere. Akreditazioaren jarraipenean eta berritzean, Batzorde horren bilerekin buruzko aktak eskatzeko aukera izango da.

3. Konpetentziak

3.1. Titulazioaren ezarpena antolatu eta garatzean, nazioartekotze-ekintzak integratu behar dira, titulaziorako edo ibilbiderako ezarritako konpetentziak garatzeko.

4. Ikasleen sarbidea eta harrera

4.1. Tituluan edo ibilbidean sartzeko bide eta betekizunak zein diren adierazi behar da, gomendatutako

sarbide-profila barne, ikasturte bakoitza hasi baino lehen iragarri beharko dena. Nazioartekotzeko Kalitate Ziurtagiri baten aitortpena jaso dezakeen titulu baten ikastaroa egin behar duten ikasleei hizkuntza-maila egoki bat eskatuko zaie, tituluan sartzen direnean.

Ibilbide baterako aitortpena eskatzen bada, harrera-irizpideak ere ezarri beharko dira, baita ibilbidean sartzeko neurria ere. Unibertsitateak informazio hori iragarriko du titulazioaren webgunean, behin aitortpena lortu eta gero.

4.2. Matrikulatzen diren ikasleei laguntza eta orientazioa emateko helburuarekin titulu edo ibilbiderako aurreikusitako ekintza espezifikoak aipatu behar dira. Unibertsitateak informazio hori iragarriko du titulazioaren webgunean, behin aitortpena lortu eta gero.

5. Ikasketen planifikazioa

5.1. Unibertsitateak mugikortasun-programak eduki behar ditu, baita EAEn ofizialak ez diren hizkuntzetarako eskaintza eta aipatutako Batzorde eragilea ere, eta, azken horrek 2. irizpidean azaldutako parametroen arabera definitutako nazioartekotze-estrategiari helduko dio, eta estrategia hori koordinatuko du.

5.2. Curriculum antolamenduak, irakasleen koordinazioak eta ebaluazioak titulazioen artikulazioa ahalbidetu behar dute, atzerriko unibertsitateekin elkarlanean eta Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren testuinguruan edo nazioarteko beste testuinguru batzuetan.

Atal honetan honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- Programaren kompetentziek nazioarteko inguruneetan garapen profesionala nola errazten duten azaltzea.
- Nazioarteko interes-taldeentzako programaren gaineko informazio publikoa izatea, publiko jakin batentzako atzerriko hizkuntza batean.
- Beste herrialde batzuetako enpresa edo erakundeetan praktikak egiteko aukera.
- Nazioartekotutako egitura duen ikasketa-programa bat: baterako programak, partekatutako irakasgaiak, kudeaketa-organo komunak, etab.
- Irakasleen mugikortasun eta trukerako nazioarteko hitzarmenak izatea.
- Mugikortasunerako ekintzak, esaterako, ikasleen aholkularitza eta harrerarako laguntza, hitzarmen eta protokoloen sistema bat.

Eskaeran, aurreko alderdietako bakoitzari buruzko informazio berezia aurkeztu beharko da.

5.3. Titulazioak edo ibilbideak aitortpena jaso dezan, tituluak EAEn ofizialak ez diren hizkuntzetan eskaini behar du irakaskuntza, gutxienez kreditu guztien % 20ko ehunekoan Graduen kasuan, edo kreditu

guztien % 30ean Masterren kasuan.

Nolanahi ere, ikasleak Tituluaren Gehigarri Europarrean nazioartekotze-aitorpena txertatzeko aukera izan dezan, gutxienez Graduako ECTS kredituen % 25 eta Masterrekoen % 50 gainditu beharko du EAEn ofiziala ez den hizkuntza batean, GAL/MAL barne, eta gainera, gutxienez 30 ECTS gainditu beharko ditu nazioarteko mugikortasun-programei loturik, ehuneko horietan. Ibilbide baterako aitortpena eskatuz gero, ibilbideko ikasle guztiek gainditu beharko dituzte betekizun horiek.

6. Langile akademikoak

Unibertsitateak titulazioko edo ibilbideko irakasleen CVak aurkeztu beharko ditu.

Baloratuko da prestakuntza-ibilbideko irakasleek nazioarteko esperientzia akademikoa izatea eta nazioarteko sareetan parte hartzea (irakaskuntzan, ikerketan, jakintzaren transferentzian edo kudeaketan), ezarritako nazioartekotze-helburuak betetzeko bidean eraginkortasunez laguntzeko aukera izan dezaten.

Irakasleek (gutxienez, % 20) C1 akreditazio bat edo akreditazio baliokide bat eduki beharko dute, ofiziala ez den hizkuntza batean irakatsi ahal izateko.

Aurrekoa gorabehera, gutxienez irakasleen % 20k honako baldintza hauetako bat bete beharko dute, hamar urteko horizontean:

- Atzerriko unibertsitateetan prestakuntza jaso izana: Gradua, Masterra, Doktoregoa.
- Atzerriko unibertsitate eta ikerketa-zentroetan egonaldiak egin izana.
- Nazioarteko erakunde batek emandako ikerketa-proiektuetan edo atzerriko unibertsitate eta ikerketa-zentroetako kideez osatutako taldeetan parte hartu izana.
- Programaren barruan irakasten duen atzerritar irakasleak izatea.
- Programaren barruan irakasten duten atzerriko unibertsitateetako irakasleak izatea.
- Irakaskuntzaren, ikerketaren, jakintzaren transferentziaren edo kudeaketaren alorretako lankidetzarako nazioarteko sareetan parte hartzea.
- Mugikortasunerako indarrean dauden nazioarteko hitzarmenak baliatu izana.

Eskaera aurkeztean, aurreko alderdietako bakoitzari buruzko informazio bereizia aurkeztu beharko da, hala badagokio, irizpide bakoitza betetzen duten irakasleen ehuneko zehaztuta.

7. Baliabide materialak eta zerbitzuak

Nazioarteko ikasleen arretarako behar adina baliabide material eta giza baliabide eskuragarri daudela

egiaztatu beharko da. Baliabide materialak azalduko dira, eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen hizkuntza-eskakizuna adieraziko da, atzerriko ikasleei arreta emateko nahikoa izan beharko duena.

8. Aurreikusitako emaitzak

Atal honetan ez dago irizpide espezifikorik Nazioartekotzeko Kalitate Zigilu edo aitorpenerako.

9. Kalitatea kudeatzeko sistema

Nazioartekotzearekin zerikusia duten prozedurak aurkeztuko dira, baita titulazioaren diseinu eta planifikazioarekin, jarraipenarekin eta ezarpenarekin zerikusia dutenak ere. Mugikortasun-programetatik datozen ikasleen gogobetetzea neurtu beharko dute, eta beharren identifikazioa ahalbidetu, aurreko emaitzen arabera hobekuntza-ekintzak planteatzeko. Hizkuntzez jabetzeko maila ziurtatuko duten mekanismoak ere bildu beharko dira.

Tituluan edo ibilbidean mugikortasunean hartutako ikasleen batez besteko gogobetetze-mailak, gutxienez, 7 izan behar du, 10en gainean.

10. Egutegi akademikoa.

Atal honetan ez dago irizpide espezifikorik Nazioartekotzeko Kalitate Zigilu edo aitorpenerako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 20a.

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

Unibasqeko Zuzendaria